



ANDOINGO UDALA



Astelehenean hasiko dira Udal Artxiboko materialaren lekualdatze lanak

Andoingo Udalak Udal Artxiboko bulegoak lekuz aldatzea erabaki zuen pasa den urtean. Instalazio berriak, hain zuzen, Ambrosia Olabide eraikineko azpialdean kokatuta egongo dira, Pio Baroja kalean.

Une honetan espazio berria egokitzeko obrak amaituta daude, eta beraz, material guztiaren lekualdatzeari ekingo zaio. Lekualdatzea datorren astelehenean, martxoaren 11n hasiko da, eta aurreikuspenen arabera, astebete iraungo du. Horrek esan nahi du, astebete horretan ezingo direla kanpo kontsultak egin, eta soilik larrialdiko gaiak artatu ahal izango direla.

Instalazio berri hauetan baldintza hobekak izango dira, bai bertako langileentzat, baita herritarrentzat ere. Materialaren kontserbaziorako ingurune hobea eskainiko da, kontsultarako egokitutako espazioak...

Zalantzarik gabe, Udal Artxiboaren instalazio berriak herriko ondare historikoa gordetzeko leku aproposa izango dira. Epe laburrean, beraz, instalazioak zerbitzurik onena emateko prest egotea espero da.

Andoainen, 2019ko martxoaren 6an

El lunes comenzará el traslado del material del Archivo municipal

El año pasado el ayuntamiento de Andoain decidió trasladar el Archivo municipal a unas nuevas dependencias. Las nuevas instalaciones estarán situadas en los bajos del edificio Ambrosia Olabide, en Pio Baroja.

En estos momentos las obras de este nuevo espacio ya están terminadas, y por lo tanto, se va a proceder al traslado de todo el material. Este traslado comenzará el lunes, 11 de marzo, y según las previsiones, durará una semana. Esto quiere decir que durante esa semana no se podrán realizar consultas externas, y solo se atenderán consultas de urgencia.

Estas nuevas instalaciones ofrecerán mejores condiciones, tanto para las trabajadoras, así como para la ciudadanía. También ofrecen un entorno más óptimo para la conservación del material, espacios para las consultas...

Sin duda, el nuevo Archivo Municipal dispondrá de unas instalaciones apropiadas para salvaguardar el patrimonio histórico de nuestro municipio. Se espera que en breve las instalaciones estén preparadas para dar el mejor servicio.

En Andoain, a 6 de marzo de 2019

